hогоi garrena sen , gois argi eta garbi bates, goiseko lau orenetan jokhatu ginenak inguruna hartan orainon egin sen gudukarik handianean ; Ordukots errekek eginak gintuen bi aldetarik elgarren berdinak, eta lehen aldikots moda berrias jokhatu ginen = Lau orenetarik eta hamekak arthé elgarri tiroka, hogoi eta hamar bat metretan elgarretarik : Etsen berechtasuna handia ; Orainon gutiagokoa sen baioneterat juan ginenean ; Deithuran eskastu sen bistan da frango ; Bainan etsasuela usté isan bertsaldek gutiago sela ; Etsen bi aldetarik Jatsu eta haltsu besala desmatsiak berdintsu siren ; Eta erran behar dut beresiki gure alderdian ; Etsaiaren Artilleriak herrautsiak atchiki gintuela ; Abanchu ehortsia gure gordailuetan ; Hala nola gureak etsituen gogorki khechatu alemanak lau ukhaldi goisean egorri ondoan ; lerrotik hurbilchko selakots, lekhuak hustu situen, eta gibelago jarri ; han dembora gusia ichil eta mutu egoiteko ? Hamekak siren guduka minen minean selarik, ohartu ginenean es giniola gehiago atchik buru etsaiari ; Ernatu ginen laguntsa galdatserat ; Bainan etsinedaketé asma gure bihotseko lastura jakitéarekin etsitakela nehor igan misione horren eremaiterat ?

38. Beha aintsin gibel eta sahetsetarat ; Lagunen ordé es ginuen ikhusten etsairik baisik ; Guk deusik ikhusi gabé eta deuseri ohartu gabe, Mendiska bat ginuelakots gibelean ; Etsaiak inguratu gintuen, acheria sakhurrek bere silhoa besala : Etsen deus egitekorik bakhar bakharra ginen lauetan hogoi bat bertsé orotarik berhechiak eta preso hartuak ; Burua bi balas hunkitua isanik, burua aphur bat durdusatua nuen ; eta ene gogoan etsen sartsen ahal ongi ser iragaiten sen ; Har gatik orhoitsen nais ikhusirik Aleman ainsindari bat heltsen gure erreka ichkinerat, harmak botha gintsan erraitera ; Eta hekien eskuetarat eroriak ginela adiarastera ethorria ; Esin bertsea sen = Esagutsa aphur bat plomatu sitsautan arthé herchi hortan Eta nik ere esagutu nuen es ginuela deus hoberik egiteko ; baisen Sumetitsea hoikien manueri ; Guk guduka hastapenean besembat gison ; hartu gintusten hauek ere akhabantsan ; es ginuen elgar erastekorik ; batsu bertseak besembat baginen)

mois par un matin claire, et nette ; Qu'on c'était engagé au plus grand combat qu'il avait eu lieu dans ces parages encore, à quatre heures du matin ; pour l'ors on avait fait les tranchées des deux côtés du même condition : Et c'est pour la première fois qu'on c'était engagé par nouvelle môde ; De quatre heures du matin jusqu'à à onze heures ; tiraillant les uns aux autres, a trente mètres de distance des uns des autres ; La séparation n'était pas grande ; C'était encore moins quand on était allé à la Bayonnette Il y avait eu beaucoup de manquant à l'appel c'est compréhensible ; Mais ne croyais pas qu'il y avait moins de l'autre côté ; Il n'y avait de deux côté ; comme jatsu (**Jatxou**) et halsu (**Halsou**), que des pertes équivalentes ; Et il faut que je dise qu'à notre côté particulièrement L'artillerie ennemie nous avait tenue attéré ; Presque enterré dans nos cachettes : Par exemple le notre n'avait pas fort inquiété les allemands ; Après avoir tiré quatre coups le le matin ; Il avait vidé les lieux, parce qu'il était trop près ; Et se mit plus en arrière pour rester-là silencieux, et muet ; C'était onze heures quand le combat était à son plus grand acharnement ; Quand on c'était aperçue qu'on pouvait plus tenir tête à l'ennemie ; On s'était dépêcher à demander du renfort ; Mais vous ne pourriez-vous imaginer de notre écoeurance ; En sachant que personne ne pouvait passé transmettre cette mission ; **38.** Regardé devant, derrière, et à côté ; En place des camarades on ne voyait que d'ennemies ; Nous ; parce-que nous avons une colline derrière-nous sans se rendre compte de rien ; et s'en s'apercevoir de rien ; L'ennemie nous avait cerné, comme les chiens ; le renard dans son terrier ; Il n'y avait rien a faire ; On était une quatre-vingtaine seulement séparé de tout les autres, et pris prisonniers ; Ayant eu la tête légèrement touché par deux balles, j'avais la tête un peu étourdie ; Et dans ma pensée, il ne pouvait bien rentrer ce qui ce passait ; Cependant ; je me souvient d'avoir vu un officier allemand, arrivé sur le bord de notre tranchée ; dire qu'on se débarrasse de nos armes ; Et venue nous faire entendre qu'on était tombé entre leurs mains ; C'était l'inévitable : J'avais repris connaissance dans ce petit lapt de temp ; Et moi aussi j'avais reconnue qu'on n'avait rien de mieux à faire que de se soumettre à leurs ordres ; Ceci a la fin

Lanjera aphur bat urrundu senean ereman gintusten kartier jeneralerat, handik eremanak isaiteko Alemania Barnerat ; kolpatu andana bat utsi ginuen hauekien gurutsé gorrian arthatuak isaiteko ; Batsu besoak mostuak, bertseak isterrak ; Batek hanka chehatua ; Bertse batek gorphutsa alde bat bertse iragana borts balas ; Eta bertse holako asko : Urrikalgarri sen aditsea hekien oihuak eta deihadarrak ; Eta aré urrikalgarriago ikhustea Lagun gaicho hokien estatua.

39. Handik 20 garrenean abiatu eta ; heldu ginen gure lehen egoitsarat, Sei egunen buruan ; Erran nahi baita 26 arratsean ; Iragan gintuen Laoneko hiria ; berbengua, Marlekua eta Hirsonekoa oines Anoreraino Beljikara juaiteko jautsi lekhuak embarkatseko, Alemaniarat burus juaiteko)

40. Gerostik hunat hemen gaudé haukien manuen aspiko ; gogoia ilhunchko ; Bainan etsasuela usté isan hargatik ; Seren preso garen dohakabé garela, eta borthiski erabiliak ? Es huna ! Nik ser erran desaketadan : Badu hirur urthé alemanian naisela ; Behin ere orainon es aintsindari, es soldado batek, es dautet erran hits bat gaiski plasaturik ; Ongi kontrarioa usté dut intelegatzen ahal baginé arras lagunak ginteskeen elgarrekin ; Entelegatsen dusué ! Hauk ere gisonak dire gu besala, eta aita familiakoak, gerla isigarri hunen akhabantsaren aiduru dagotsinak ?

41. Denek ongi kurritsen duté hemen, Ongi arthatuak garé ; Eta kaneko Aleman autoritatek, beren egin ahalak oro egiten dituste gure sorthearen estitseko ;

Esdesakegu isan ikhustaterik baisik jaun horientsat ; Eta orhoitsapen esin ahaintsisko bat baisik ;

42. Etsasuela egin odol gaistorik guretsat ; Esdauku deusek huts egiten orai artean segurik ; Es dugu isan orainon den mendreen botoinik gure gainean ; Jaun Medikuek arthatsen dituste arras ongi eriak ; Artha nesario diren gusiak hartzen dituste eritasun ooren urrutseko ;

43. Badugu komendant bat, hartas kausitsen den gusia egiten duena presonerer, serbitsu, eta atsegin egiteko.

du combat nous avait pris autant d'hommes, que nous au début ; On n'avait rien à reprocher entre nous ; On était les uns autant que les autres ; Quand le danger c'était un peu éloigné ; on nous avait enmenés au Quartier général ; Pour être dirigé de-là à l'intérieur de l'Allemagne ; On avait laissé un tas de blessé, pour être soigné à leur croix-rouge ; Les uns les bras emporté, les autres les cuisses ; L'un la hanche brisé ; Un autre le corps perforé de cinq balles ; Et beaucoup d'autres comme ça ; C'était pitoyable d'entendre leurs cris, et plaintes ; Et plus pitoyable de voir encore l'état de ses pauvres camarades.

39. Partie de là le vingt ; On était arrivé à notre première demeure au boût de six jours ; Ceux qui veut dire le vingt-six ; On avait traversé les villes de Laôn (Laon), Vervins, Marlis (Marly) et Hirsons (Hirson), à pied jusqu'à à ânor (Anor) ; ~~Au lieu qu'on~~ Pour être embarqué sur le même lieu qu'on avait débarqué pour aller en Belgique ; Pour aller vers l'Allemagne :

40. Depuis l'ors on reste ici sous leurs ordres ; La pensé un peu obscure ; Mais ne croyez pas cependant ; Que parce-qu'on est prisonnier on est malheureux, et mênée brutalement ; Non voici ! Ce que je peux dire personnellement ; Il y a trois ans que je suis en Allemagne ; Pas une fois encore, ni officiers ; ni un soldat, m'ont pas dit une parole mal placé ; Bien le contraire ; Je crois que si on pouvait se comprendre on serait tout-à fait camarades ensemble ; Vous comprenez ! Ceux-ci aussi sont des hommes comme nous, et pères de famille ; qui attendent la fin de cette terrible gerre ?

41. Tout marche bien ici : On est bien soigné ; Et les autorités allemandes du camp, font tout leur possible pour adoucir notre sort ; Nous ne pouvons avoir que de la reconnaissance pour ces Messieurs ; Et qu'un souvenir inoubliable :

42. Ne vous faites pas de mauvais sang pour nous ; Rien nous fait défaut, au moins jusqu'à present ; On n'à pas eu encore le moindre boûtôn sur nous ; Messieurs les medecins soignent très bien les malades ; Ils prennent tous les soins necessaires pour ecarter tout épidémie ;

43. Nous avons un commandant qui fait tous qui dépend de lui pour faire plaisir, et rendre service aux prisonniers.

Kanian garenean ; karta jokotan ari gare, eta anderetan, edo irakurtsen dugu sombeit liburu etchetik ethorrietarik, eta parisko edo frantsia barneko lagunek isanetarik ;

44. Dembora eder denean, bagoatsi gure barraketarik khampo aire onaren hartserat ; Badiré fotbalian jokatsen direnak ere ; Igandé arratsaldetan juaiten ahal garé konseraren ikhusterat ; Seren gure arthean bada chirribikari onik ; Merseburreko hiriak fornitsen dioté nahi besembat chirribika ; eta komandaturak erresalbatsen dioté barne handi bat ; beren errepika eta konserren egiteko ?

45. Aldis paketen heltseari, eta heien partillari, es dut erregurarik ; Isaiten ahal saresté osoki seguratuak ; Hoikien serbitsua hoin baliosa guretsat egina dela salbuki, eta manera beresi bates ; Badugu barne handi bat ; Nun paketak eremanak baitiré garatik ; kaneko korbetas ; Eta klasatuak Lagun frantseses, hortako bakharrik isendatuak direnetas ? Gero ikhartuak dire eta emanak, frantses kargudunen begiramenduaren pean ;

46. Erraiten dautsuet beras egiak manatsen duen besala frankoki ; Alemanian kartselero sarthus gerostik ongi arthatua naisela ainsindari eta soldado alemanes ? Es dakité ser egin guri plaser egiteko ; Alcharasi dute teatré bat, eta chirribika konfrario bat, sinemarekin ? borts sos pagatsen dugu sartsea ; Eta dirua itchuria da ongi egilearen bureurat erien sokhorritseko ; Denak ongi, eta burus eginak dire, eta kurritsen duté esinago hobeki ; es dut errenkuratseko) (kontent nais)

47. Bainan dakisuen besala esgiaske oro, gausa miragarri hoier beha egon ; Lanian ere ari garé pharterik handiena ; bakotcha bera eroria den lekhuetan ; es gare tratatuak etsai besala : Edo soin aldetarik ; isan dadin soldado edo sibil ; Aski ontsa hasiak gare mendearen arabera ; Eta ontsa etsanak chukoan ; Ni naisen fabrikako jendeak arras gisakoak diré ; eta halaber herriko egoileak ? Hits bates arras ongi ikhusiak garé ; Eta desiratsen dugu denek gure hemengo dembora akhaba dadin lekhu berean ?

Quand on est au camp ; On joue au jeu de cartes, et au dames ; Ou on lit quelques livres venues de chez-nous, ou de Paris, ou des camarades du centre de la France qui en ont reçues

44. Quand le temp est beau ; On s'en va hors de nos barraques prendre le bon air ; Il y en à qu'il jouent au Foot-ball aussi ; Les dimanches après-midi on peut aller voir le concert ; Car parmie nous il y à de bons violonistes ; La ville de Merseburg leur fournit des violons tant qu'il veulent ; Et la commandature leur preserve un grand local pour faire leur concert, et repetitions ;

45. Tandis qu'à l'arrivé des colis, et leur répartition ; Je n'ai pas à me plaindre ; Vous pouvez être entierement certifié ; Leur service si utile pour nous, est faite lestement et d'une façon toute particulière ; Nous avons un grand local ; Ou les colis sont enmener de la gâre ; Par les corvées du camp ; Et classé par des camarades français, qui sont designé expressement pour ça ; Après ils sont visitées ; et données sous la surveillance des grâdées français ;

46. Je vous dit dont comme le commande la vérité franchement : Que depuis que je suis rentré prisonnier en allemagne, que je suis bien traité de la part des officiers et soldats allemands : Ils ne savent que faire pour nous faire plaisir ; Ils ont fait élevée un théâtre, et une société de violion, avec sinéma ; Nous payons cinq sous la rentrée ; Et l'argent est versé au bureau de la bienfaisance pour secourir les malades ; Tout est fait bien fait, et de tête, et marchent on ne peut mieux ; Je n'ai pas a me plaindre (Je suis content)

47. Mais comme vous savez nous ne pouvons tous rester à regarder ces admirables ; On travaille aussi la plus grande partie ; chacun a la place ou il tombe ; On n'est pas traité comme énnemie ; De n'importe quel côté, qu'il soit soldat ou civil ; On est assez bien nourrie selon l'excistence ; Et bien couché au sec ; Le personnel de la fabrique ou je suis sont très sympathiques ; Et de même les dém_nt* du village ; En un mot, on est très bien vues ; Et nous desirons tous que le temp de notre captivité se finisse ici-même :

**ce mot est masqué par une perforation du papier*

48 49. Letrak ere isaiten ditugu sortsi gusian ; Es da gausa bat handia, kasik deusik, paperesko piltsar bat ; bertsen dako baliorik gabe, eta guretsat esin aski estimatuak – Hortakots ditugu ardura irakurtsen gogos ikhasi nahi bagintu besala ; eta begiratsen arthuski,- Sorthreak egoitsetarik

Nº7 - urrun atchikitsen dituenentsat, es daiteké erran ser loriaren ithurhocha den letra bat ; Desesperacionearen kontra ser esin akhabatusko erresurtsa ekharten duen presuner tristeari ; Es isana gatik ere esku artech bates iskiribatuiak hek dakarkiuisten hits chimpléek badute guretsat chilincha soinu arin batek baino grasia gehiago ; – Ser letra gochoak gure eskualdun bihotsarentsat ; Eta soin alegeraki dakarskiuten urrundik, gure sor lekhuaren orhoitsapen maiteak ? Gure sor lekhuas hoin gochoki mintso sauskigun letrak baino hobeki ; Serk dauku sustatuko bihotsean sor lekhourat itsultseko lehia, Nihork es dio kompara ? Isanik ere den koblaririk handiena bere ispiritu eta dohainekin, harek es liro bere bertsu ederrekin gure oinhasea aphasega, Nola gure Maitéenek iskiribatu lerro bakharrek ?

50. Adichkidé maiteak ? Hoik gusiak hola, es soberarik gaiki, eta baginé ere hobeki ; Badugu bisi mendé huntarik aski ; gausa gusiek baduté beren mugerria ; Bainan gerla hunek esdakit ; jada hirur urthé hunen hastapenak, eta es orainon ikhusten akhabantsako itchurarik ; Pasientsia, eta kuraya hartses goihenduak gare, eta ispiritus bethi numbeit garé ? Orai artean gure gogoetak hondatu diré desesperasioneako itsaso batean ; (eta nois eta ere alchatu baititugu begiak serurat.. es dugu ikhusten ahal isan libertaterat ereman behar gintuen isarra), Sondatu dugu jendetasuna es da isan orai artean oinaserik baisik) Bainan egungo egunean ene aldetik ; Sartsen naisenean ene kontsientsako ilhunbé barnenetan ; ikhusten dut argitsen sendimendu berrisko argi dirdirant bat ; Eta sendimendu berri hau da ; Argi hunek emaiten dautan konsolasione bat ; Soina atsartsen baita ni haurreran barne beherean ?

51. Sendimendu horrek berak erraiten daut : Urrikalmendua helduko dela laster munduaren salbatsera ; Bai ene adichkidé maiteak ; Gisonek, batsuek bertsesat urrikari

48 – 49. On reçoit aussi les lettres tous les huit jours ; Ce n'est pas une grande chose, presque rien ; Un chiffon de papier ; Pour les autres sans valeur ; Et inestimable pour nous ; C'est pour ça qu'on les relie souvent, comme si on les voulait apprendre par cœur ; Et les gardons soigneusement ; On ne peut pas dire qu'elle source de plaisir est une lettre, pour ceux que le sort les retient éloigné des foyers : Qu'elle infinie ressource elle apporte au triste prisonnier, contre le désespoir ; Quand même qu'il ne soit pas écrites d'une main adroite les simples mots que ceux-ci nous apportent, on pour nous plus de grace, que le plus fin son d'un sornet ;

Quels doux lettres pour notre cœur basque ; Et avec quel gaïeté nous apportent de loin les aimables souvenirs du pays de notre naissance ; Qu'est qui va nous embraser au cœur, mieux que les lettres qui nous parlent si doucereusement de notre pays de naissance ; l'envie de retourner à ce pays de naissance ; Personne ne peut le comparé ; Quand que ça serait le plus grand poète qu'il exciste, avec ses esprits et ses dons ; Lui ne pourrait avec ses beaux vers, apaisé notre souffrance ; Comme les quelques lignes écrites par nos plus aimées ;

50. Chers amie : Tout ça comme ça ; pas trop mal ; Et si on était mieux aussi ; Nous avons assez de cet existence ; Toutes choses ont leurs limite ; Mais cette guerre je ne sais pas ; Déjà bientôt trois ans que ça débuté : Et voyons pas encore mine de fin ; Nous sommes lassé de prendre patience, et courage ; Et nous sommes d'esprit, toujours quelque part ; Jusqu'à present nos pensée se sont engloutie dans un mer ocean de désespoir ; Et quand nous avons élevé les yeux au ciel ; Nous n'avons pue découvrir l'étoile qui devait nous mener à la délivrance ; Nous avons sondé l'humanité jusqu'à present elle n'à été que Néant souffrance ; Nous avons chercher l'espoir suprême en Dieu il n'a été que Néant ; Mais le jour d'aujourd'hui, de ma part ; Quand je rentre dans obscurs profondeurs de ma conscience ; Je vois luire une lumière brillante de sentiments tout nouveau.

Et ce nouveau sentiment est : Une consolation que me donne cette lumière ; Le quel se reveille au plus profond de mon interieur ;

51. Ce même sentiment me dit : Que la pitié arrivera bientôt à sauver le monde ; Oui mes chers amie ; Quand les hommes auront pitié

duketenean ; eta Munduak aski oinasé pairatu duela entelegatu duketenean ! Orduan beharbada gisonak bilduko dire eta elgarri esku emanen) Bisi mende huntarik atheriak isanen garela gogoan iragaitearekin ; Boskario batek lotsen nau hain askarki, nun disimolatsea baitut aski lan ;

52. Eskual herrian badakit chokho bat ferdaberriak gordetsen duena eta sasoinean sorhopilak uda lilis bestituak direnak ; Eta nun haurren irrien soinu alagerak nahasten diren chorien khantueri, eta naturalesako harramantseri

Ene gogoek ; Deskantsus bethea den chokho hura = Bathaiatsen dute ene (Ametsa) Seren egin ditudan gusiek han duten simendua) Han iragan ditudan ohiko dembora on hek iduritsen sait ikhustea orainon ; Ene karselako arima hunen ametsetan trebes ; Ene begien bistara heldu saiskit ohiko urhats gusiak nun dohakabeki ene gastetasuna iragan baita lasterregi.

53. Ordutik hunat bada hain gaindi ere khambiamendu ; Alegrantsia es da gehiago egoitsetan ; Gerlak hartu ditu aitak eta semeak ; Eta arbasoak seruetan dire ; Khantuek ere es dute gehiago oiarsunik ; Etcheak ilhun dire ; Laborariak harmetan dire ; Eta orai nork bada iraultsen ditu hildoak ;

54. Eraiteko esku arin bates artho bihiak, eta ogi bihiak) Eta gero nork ditu jorratsen lurrak, eta goisean argi urratsean eremaiten behiak alha pidetarat ; Haurrak lo es dagotsienean nork ditu hartzen belhaunen gainean, eta konsolatsen beren khantuekin ; Emasteak diré ; gasteak eta saharak adin orotakoak ; lanari eman dire eta es dute galdu kuraya ; Gaichoak hek ere, gerla hunen gatik lan doblen aspian dire ; Oh ! Ama eta Andre sublimoak nola umilatuak diren ; nork sekulan sondatuko du hoikien bihotsaren barnatasuna ; Biskitartean mehechi dituste laudoriorik beroenak Seren erresuma serbitsatsen dute eskuetan atchikis sega edo haintsurra ; Jinkoak benedika detsala gaichoak beren pena eta obra onen artean ;

55. Adichkide maiteak = Esperantsa aphur bat atchikitsen dutenak, es ditu frogak hain borthiski hunkitsen ; Ni ere Lehia handi batek harturik nago ohiko lekhuko horien Ikhusteko ; Eta kondatsen dut laster, horien berrits ikhustia

des uns des autres ; Et quand il auront compris que le monde à assez pâtie de souffrance ; Alors peut-être les hommes se reuniront, et se donneront la main entre eux ; Quand je pense qu'on sera sortie de cet existence ; Une joie me prend si fortement que j'ai peine à le dissimuler.

52. Au pays basque je connais une cité ; Que la verdure le couvre ; Et ou à la saison les gazons sont ~~couverts~~ vetue de fleurs d'été ; Et ou les gaie son de rire des enfants se mêlent au chant des oiseaux ; Et au bruit de la nature ; Mes pensées ; Ce coin si plein de tranquillité ; Le baptisent : (Mon rêve) Parce que tous que je fais ont leurs fondements là-bas ; Il me semble de voir encore les bons temps que j'ai passé autrefois là-bas ; A travers les rêves, de cet âme, de mon exil ; Tout les demarches d'autrefois me viennent au regard, ou malheureusement ma jeunesse à écoulé trop vite.

53. De lors il y a là-bas aussi du changement ; L'allegresse n'ait plus dans les demeures ; La guerre à pris les pères, et les fils ; Et les aieuls sont aux cieus ; Les chants aussi non plus d'échôs ; Les maisons sont obscures ; Le laboureurs sont aux armes ; Et maintenant qui c'est donc qui laboure les sillons ;

54. pour semer d'une main légère les grains de maïs, et de blé ; Et après qui c'est qui sarcle les terres ; et enmène le matin à la pointe du jour les vaches au paturage ; Quand les enfants ne dorment pas ; Qui c'est qui les prend sur les genoûx et les console avec leurs chants ; Ce sont les femmes ; Jeunes et vieilles de tout âge ; Ils se sont mis à l'œuvre et non pas perdu courage ; Les pauvres elles aussi à cause de cette guerre sont sous le double poid du travail ; Oh ! Meres. Et épouses sublimes comment elles sont humiliés ; Qui jamais sondera la profondeur de leurs cœurs ; Cependant elles meritent les plus chaleureuses loûanges ; Parce-que elles servent la Patrie en tenant à la main la faux, ou la bêche ; Que Dieux bénisse les pauvres dans leur peines et bonnes œuvres ;

55. ~~Peti~~ Chers amie : Ceux qui gardent un peu d'espoir. La preuve ne les touche pas si fort ; Moi aussi je suis pris d'une envie d'aller voir ces gens qui habitait dans ces lieu autrefois ; Et je compte les revoir bientôt ; Je m'attendais pas à une si longue deception ; Je ne sais qu'oi

Es nintsen igurikitsen holako nahi-gabé luse bati ; Es dakit ser pentsa es eta ere ser asma ; Biskitartean es nais desesperatua es eta ere deskurayatua ; Ongi kontrarioa ; indar isigarri bates atchikia aurkitsen nais ; Dohatsuki emaiten dauku jinkoak esperantsa ; Esperantsa horrek atchikitsen nau ; Eta esperantsa horrek berak emaiten daut nahi-gabé orori ihardokitseko indarra ; Eta esperantsa horrekin badut konfidentsia jinkoa baithan ; Hara sertako es naisen usten jauitera dolorerat ; Eta horra sertako igurikitsen dud(an) deskantsurekin ; Alegrantsiasko egun soragarri hura ; soinak eman behar baitaut orai artean gabetua atchikitsen nauten libertate hura)

56. Preso egines gerostik piayatu nais aphur bat Alemaniako herri huntan ; Egin dut itsuli asko, egungo egunean nagon Sakseko herrichka huntara erortseko ; Nun hemen aurkitsen bainais hemeretsi hilabethé huntan ; Hemen ikhusten ditut, Mendiska, eta selhaiak ; Bainan es ditut ikhusten pireneetako mendiak ; Nun dire bada Larrun, hiru khorook, eguardi mendia, eta segitsen diren gusiak ? Hemendik urrun Hemen kartiera suhaitua da, eta fago ederres bestitua ; Bainan nun dire eskual herriko haits sahar eta gaste berdenak, beren iraski charmantekin ; Hemen ikhusten dut orainon estainu bat herriaren eskuineko sahetsean gureari egité handia duena ; Bainan nun da gurea ?

57. Jende onak : Nahis naturalesa horiek oro ; Eta eneak berak nitarik urrunduak diren ; eremu gusietan trebes ikhusten ditut ene bistan ; Bisis betheak eta ardura onean ; Nahis hemen nagon, ene gogoa badabila hekien inguruan itsulika ; Eta orhoit arasten daut orhoitsapen ongi gochorik !

58-59. Bai ene adichkide Maiteak ; Esperantsa dut ! Eta nahi ditut laster ikhusi hurbildik ; Ene lehen urhatsak egin ditudan herria ; Eta ene haurtasuneko lehen irriak eskapatu saistan tokia ; Estitasunes jumpatua iragan dutan etchea ; Nahi ditut ikhusi ere : eskila dorrea haur haurretik maithatua ; Eta gero muthil gaste lerden, burus, besos, eta begis hichtu handitan pilota erabiltsen ginuen errebotak ? Gure itsas leihor choragarriak Donostia Guipuskoaren erregina ! Donibane siburu bere khantu ederrekin ! Biharritse ; iguskiaren parekoa, erregen eta erreginen egoitsa esin

penser, ni qu'oi m'imaginer ; Pourtant je ne suis pas désespéré, ni découragé ; Bien le contraire ; Je me trouve soutenu d'une force extraordinaire ; Heureusement Dieu nous donne de l'espérance ; Cet esperance me soutient ; Et cette même esperance me donne la force de resister ; à tous les deceptions ; Et avec cet esperance j'ai confiance en Dieu. Voila pourqu'oi je ne me laisse pas aller a la douleur ; Et voila pourqu'oi j'attend avec tranquillité cette eblouissante journé d'alégrèsse ; Le quel à besoin de me donner cette liberté ; qui me le tiennent tranché jusqu'à présent ;

56. Depuis que j'ai été fait prisonnier, J'ai voyager un peu dans ce pays d'Allemagne ; J'ai fait plusieurs voyages pour tomber dans ce petit village de sâxe, ou je me trouve actuellement ; Oû je me trouve ici depuis dix et neuf mois ; Ici je vois des collines et des plaines ; Mais je ne vois pas les Montagnes des Pyrénées ; Ou sont donc, la Rhûne, les trois couronnes ; le pic de midi ; et tous qui s'en suivent ; (Loin d'ici !) Ici le pays est boisé, et garnie de belles hêtres ; Mais ou sont les vieux chênes et jeunes ~~droites~~ sillants, avec leurs éfilé charmantes ; Je vois encore ici un étang à l'extrémité droite du village qui a une grande ressemblance au notre : Mais ou est le notre !

57. Bonne gens ; Quoique tous ces natures, et même les miens, soit éloigné de moi ; Je les vois à ma vue à travers tous les espaces ; Plein de vie et dans le bien-être ; Quoique je reste ici ma pensé chemine tout autour d'eux ; Et m'évoque de bien doux souvenirs.

58 – 59. Oui mes chers amie. J'ai espoir ; Et veux les voir bientôt, de près ; Le village ou j'ai fait mes premiers pas ; Et le lieu ou les premiers rire de mon enfance ont éclaté ; La maison ou j'ai vécu bercé de douceur ; Je veux voir aussi ; le clocher de notre pays aimé de tout mon petit enfance ; Et après les frontons où etant sillants jeunes hommes on menait la pelote avec des sifflements aigües, avec tête, bras, et œil ; Nos éblouissantes côtes de mer ; S^t Sebastien, la reine de Guipuscoa ; S^t Jean de Luz avec ses belles chansons ; Biarritz pareil au soleil ; inseparable demeure des rois et reines ;

utsiskoa, Baiona bere bi ibai ederrekin ;
Eskualdun marignel saharren orhoitsapenes
bethea) Gure arbasoen egon lekhu miragarriak,
bere mendi selhaiekin, Urdin eta gorrast,
basterrak alageratsen dituelarik ur chirripa
garbien khantuak ; gure Mendietako lore liliak ;
beren usain bihotsalchagarriekin. Egun oros
eskaintsen ditut ene pleinuak seruari ; Baldin
eta ichur desadan grasia lehen bai lehen eskual
herrirat itsultsekoa ?

60. Han direnak ere bereak ikhusi nahituak dire.
Esen gure lekhu han da ; Eta gison bat bethi
ongi aurkitsen da, Aita(✠) baten egin bideak
bethetsen ahal dituen lekhuhan ; Ene etchean
ere neuré aiduru daude ; es direlakots ene bilha
ethortsen ahal ; Senditsen ditut han utsirikako
amen eta haurren deihadarrak ; Gu han
beharres egiten ditusten urhatsak ikhusten
ditut ; Badakit nola egiten ditusten beilak, eta
bederatsi urrunak soinek bere kartieretan,
Ahuspes jinkoari galde egiteko, itsul detsaten
✠orainon bisi diren dohakabeak ;

61. Mundarraingo mendian ainhoako kaperan ;
han du ene andre maiteak othoisten maria ; eta
heldu den urthé oros maihatsean bidarteko ur
onean ; Nahis s(om)beit grasia ihardetsi ;
kontsolamendu aphur baten gosatseko ; Bainan
orai artean hambat aldis deithu ondoan ; es du
isan desir suen sorionik ; Seren seruetako eta
lurretako nausia ere ; behere huntako
gubernadoreak besala dagon gure oihueri gogor
eta mutu ? Hala nola grasia beren eské ibiltzen
diré ; Bachenabartarrak Salbatoren, eta
Siberotarrak Sant Antonin)

62. Hoinbertsé grigna eta dolores ; Gure nausi
soberanoa ; eta jinko gusis botheretsua
urrikalgakiula ; Eta nigarretan dauden arima
onek hatcheman (des)atela aspaldian lehiatsen
duten deskantsua ?

63. Beras ene adichkidé maiteak ; Huna hirur
urthe iraganik, laugarrenari lothuak garela bethi
ber okhagarrisko bisi mendea segitus ; Bainan
oraiko orenean badugu demboraren bortchas
ethorria esperantsa aphur bat : gure Damusko
orenetan jarraikitsen gaituena ; Laster gureak,
adichkideak hausoak eta eskual herriko seru
urdina ikhusiko dugulako esperantsas bihotsa
gainditua dut ; Isan saresté beras ni besala askar
eta duphiderik gabé ; Es da nigar egiteko
dembora ; Aski nigar ichuri dugu ; Gure seruko
aita ona akitatuko da egun bates oinase eta

Bayonne avec ses deux belles fleu rivières ;
Remplie de souvenirs des vieux marins basques
; Les admirables citées de nos aïeux, avec leur
montagnes, et belles pleines ; Bleu et roûx ;
Aigueyer par le chant des eaux limpides qui
ruissellent ; Les fleurs de nos montagnes avec
leurs arôme qui relève les cœurs ; J'offre tous
les jours mes plaintes au ciel ; Pour qu'il me
verse la grace, de retourner au pays basque le
plutôt possible ;

60. Ceux qui sont là-bas, aussi sont envieux
desireux de voir les leurs ; Parce que notre
place est là-bas ; Et un homme se trouve
toujours bien à la place ou il peut remplir ses
devoirs de père de famille ; Chez moi aussi ils
m'attendent, parce qu'il ne peuvent pas venir
me chercher ; Je sens les détresses des mères et
enfants que j'ai laissé là-bas ; Je vois les
démarches qu'ils font pour nous avoir là-bas ; Je
sais comment qu'ils font des pèlerinages, et des
neuveines ; chacun dans leurs regions ;
Prosterné pour demandé à Dieu qui leur rende
les malheureux qui vivent encore ;

61. A la Montagne de Moundarrain, à la
chapelle d'Ainhôa ; C'est là que ma chère
épouse prie la S^{te} Marie ; Et a chaque année qui
vient au mois de mai au bonnes eau de bidart ;
Voulant obtenir quelque grace ; pour jouir d'un
peu de consolation ; Mais jusqu'à present après
avoir appelé mainte fois ; Elle n'à pas eu le
bonheur qu'elle desirait ; Parce-que le maitre
des cieus, et de la terre aussi ; comme les
gouverneurs d'ici-bas, reste muet et sourd à nos
appels ; Par exemple, ils vont en quête de
mêmes graces ; Les bas-Navarrais à S^t Sauveur ;
Et les Souletins à S^t Antoine ;

62. De tant de souci et douleurs ; Que notre
maitre suprême, et Dieu tout puissant nous
appitoye ; Et Que les bonnes âmes qui restent
en pleurs retrouvent le repos qu'il désirent
depuis si longtemps ;

63. Donc mes chers amie ; Voici trois ans écoulé
; Et que nous sommes pris à la quatrième,
toujours dans le même détestable existence ;
Mais à l'heure actuelle Nous avons, venue à
force temps un peu d'espoir : qui nous suit dans
nos heures pénibles ; J'ai le coeur débordé avec
l'espoir que je reverrai bientôt les miens, mes
amis, les voisins et le ciel bleu du pays basque ;
Soyez donc comme moi fort et sans faiblesse :
Ce n'est pas le moment de pleurer ; On à verser
assez de larme ; Notre bon père du ciel

eskarmenta orori burus ; ardiesten eta onhesten daukularik sorion handi hau
(Bildutasuna eta Bakea)

64. Adichkide maiteak ; Letra hau iskiribatsen dut atsegin handirekin ? Ni hemen preso bisi naisena ene maité orotarik berhechia eta urrundua Karga dolorosenen aspian desiratsen d(ut) orori eta manera beresi bates hunen irakurtseko ohorea duketener. Misericordiako isarrak lagun detsan eta eman desoten galdu dutan pausa, Egun bakochean sorion berri batekin

65. Akhabatsen dut ene letra segitseko memorio eskases ;

Desmasiasko, eta urrikalgarrisko oren hautan ;
Soinek tristatsen baitituste gure gogoak ; Ohiko orhoitsapen gochoak jarraikitsen saustalarik
Estigarri eta kontsolagarri

Suhas Antoine

s'acquitera en un seul jour envers tout nos souffrances et angoisses ; En nous obtenant ce grand bonheur (L'union et la Paix)

64. Chers amie : J'écris cette lettre avec grand plaisir ; Moi qui vie ici prisonnier séparé de tous mes biens aimées, et éloigné sous le poid des plus grands douleurs Je souhaite à tous ; Et tout particulièrement à ceux qui auront l'honneur de lire celle-ci ; Que l'étoile de Misericorde les aide ; et leur donne le repos que j'ai perdue ; avec un nouveau bonheur ~~tous les~~ chaque jours ;

65. Je fini ma lettre à défaut de mémoire pour continuer ;

Dans ces heures de catastrophes, et de pitié ;
Les quels attristent nos pensées ; En evoquant les anciens doux souvenirs qui me suivent attendrie, et consolatrices

A. S.